PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

1.- SARRERA

Urruzunoko Zabortegia Elgoibarko (Gipuzkoa) udalerrian dago kokatua, Urruzuno auzoan. Zabortegi nagusi batek (1. Eremua) eta bi zabalkuntzek (2. Eremua) osatzen dute.

Kontrol topografikoa Eusko Jaurlaritzaren ebazpen hauen arabera egingo da:

1. Eremua: 2013ko urriaren 14ko Ebazpena, Elgoibarko udalerriko Urruzuno zabortegia itxi ondorengo mantentzea eta kontrola eskatzen duena.

2. Eremua: 2023ko apirilaren 21eko Ebazpena, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordearena, ingurumen baimen integratuaren aldaketa behar duen instalazioaren aldaketa ez funtsezkotzat jotzen duena Debabarrena Mankomunitateak jakinarazitako aldaketa proiektua (Urruzunoko Zabortegia, 2. eremua), Elgoibarko hondakin ez arriskutsuen zabortegia itxi ondorengo mantentze eta kontrol jarduerarako dena.

2.- KONTRATUAREN OBJEKTUA

Lehiaketa honen xedea da gorago adierazi diren ebazpenetan ezarritako baldintzak betetzeko behar diren kontrol topografikoa eta txostenen idazketa egitea.

1. EREMUA: Kontrol topografikoa, Ingurumen Sailburuordearen 2023/10/14ko Ebazpenaren 11. puntuan adierazitakoaren arabera.

Lan hauek gauzatuko dira:

- Urteko irakurketa bat, urtearen lehenengo hiruhilekoan egingo dena. Tokiak 44 kontrol mugarri eta 8 kontrol base ditu.
- Txostena idaztea, barne hartuta mugarrien aipamenak, kokalekuaren planoa eta argazkiak, asentuen kalkulua eta emaitzen interpretazioa.
- Gaizki dauden mugarriak ordeztea.

2. EREMUA: Kontrol topografikoa, itxi ondorengo baldintza ezartzen dituen F.4 puntuan adierazitakoaren arabera (2023ko apirilaren 21eko Ebazpena).

- Urteko irakurketa bat, urtearen lehenengo hiruhilekoan egingo dena. Tokiak 10 kontrol mugarri eta 3 kontrol base ditu.
- Txostena idaztea, barne hartuta mugarrien aipamenak, kokalekuaren planoa eta argazkiak, asentuen kalkulua eta emaitzen interpretazioa.
- Gaizki dauden mugarriak ordeztea.

3.- LIZITAZIOAREN AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Zaborregiaren 1. Eremua: Urteko irakurketa bat

- Lau urteetan egin beharreko lanen balio zenbatetsia 11.590,72 €-koa da (BEZik gabe), 2.897,68 € urtean.
- Lau urteetan egin beharreko lanen lizitazioaren aurrekontua 14.024,77 €-koa da (BEZa barne).
- Lizitazioaren urteko aurrekontua 3.506,19 eurokoa da, BEZa barne.

  Lanen unitateko prezioak honako hauek izango dira:
  - Datuen irakurketa: 27,22 euro mugarri bakoitzeko, BEZik gabe, gehienez 44 mugarriren gainean. Guztira: 1.197,68 €, BEZik gabe.
  - Txostena egitea: 1.500,00 €, BEZik gabe
  - Mugarriak berrezartzea: 40,00 euro mugarri bakoitzeko, BEZik gabe, gehienez 5 mugarriren gainean. Guztira: 200,00 €, BEZik gabe.

Zaborregiaren 2. Eremua: Urteko irakurketa bat

- Lau urteetan egin beharreko lanen balio zenbatetsia 6.408,88 €-koa da (BEZik gabe), 1.602,22 €urtean.
- Lau urteetan egin beharreko lanen lizitazioaren aurrekontua 7.754,74 €-koa da (BEZa barne).
- Lizitazioaren urteko aurrekontua 1.938,69 eurokoa da, BEZa barne.

  Lanen unitateko prezioak honako hauek izango dira:
  - Datuen irakurketa: 27,22 euro mugarri bakoitzeko, BEZik gabe, gehienez 10 mugarriren gainean. Guztira: 272,22 €, BEZik gabe.
  - Txostena egitea: 1.250,00 €, BEZik gabe
  - Mugarriak berrezartzea: 40,00 euro mugarri bakoitzeko, BEZik gabe, gehienez 2 mugarriren gainean. Guztira: 80,00 €, BEZik gabe.

Lau urteetan egingo diren lanetarako kontratuaren balio zenbatetsia 17.999,60 €-koa da (BEZarekin).

Lau urteetan egingo diren lanetarako lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 21.779,51 €-koa da (BEZarekin).

Kontratua benetan egindako prestazioen unitateko prezioen arabera gauzatzen da, eta kontratuaren arduradunak jaso beharko ditu, urteko aurrekontuaren mugarekin.

Eskaintzen den prezioa lizitazioaren aurrekontuaren azpikoa izan beharko da, horren barne direla kontratua egikaritzetik eratorritako **zerga** eta gastu guztiak.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontu horrek, BEZarekin, barne izango ditu, gutxienez, kontrol topografikoa egiteko datuak biltzea eta urteko balorazio txosten bat, Ingurumenaren Zaintza Planean sartuko dena.

Kontratuak irauten duen bitartean, enpresa esleipendunari laguntza puntuala eskatu ahal izango zaio mugarriak aurkitzeko, eta horiek eskuragarri mantentzeko behar diren sastrakak kendu ahal izateko.

4.- KONTRATUAREN IRAUNALDIA

Kontratuaren objektua osatzen duten lanak lau urteko epean zehar gauzatuko dira, kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik aurrera, eta datu bilketa bat eta txosten bat egingo dira, urtean behin, eremu bakoitzean.

5.- ESKAINTZAK BETE BEHARREKO GUTXIENEKO BALDINTZAK

Derrigorrezkoa izango da kontratuaren objektuaren zerbitzura jarriko diren datuen bilketarako baliabide materialak deskribatzea. Halaber, zehaztu beharko da lan hauetarako ibilgailu elektrikorik baliatuko den eta lanak egitean ingurumena babesteko neurri zehatzik hartuko den.

Era berean, derrigorrezkoa izango da lehiaketaren objektua osatzen duten zerbitzuak emateko atxikiko diren giza baliabideak eta baliabide materialak adieraztea, baliabide horien kualifikazio eta bestelako ezaugarriekin batera, batez ere langile teknikoei, txostenen idazketari eta landa lanak egingo dituzten langileei dagokienez.

Derrigorrezkoa izango da ere Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateari entregatuko zaizkion txostenen forma eta edukia azaltzea, egindako neurketa guztien emaitzen inguruko xehetasunak emateko eta aurki litezkeen anomalietarako ekintzak proposatzeko.

Baldintza hauek betetzen ez dituen eskaintza hautaketa prozesutik kanpo gelditzuko da.

6.- KONTRATUA EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Enpresa adjudikaziodunak gizarte eta ingurumen arloetako baldintza berezi hauek bete beharko ditu.

1.- Gizarte izaerako baldintzak:

Enpresa adjudikaziodunak 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, bete beharko du, eta baita EAEn indarrean dagoen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana ere.

2.- Ingurumen izaerako baldintzak:

Enpresa adjudikaziodunak berotegi efektuko gasen isurpenak murrizteko konpromisoa hartzen du lan hau gauzatzean. Beraz, beharrezkoak ez diren bidaiak saihestuko ditu eta erregai alternatiboak baliatzen dituzten ibilgailuak erabiliko ditu erabat beharrezkoak diren bidaietarako.

Enpresa adjudikaziodunak sortzen dituen hondakinak murriztuko ditu, ahal diren material guztiak berrerabiliko ditu eta lanak egitean sortzen diren hondakinak gaikako bilketarako bereiziko ditu.

Enpresa adjudikaziodunak modu arduratsuan erabiliko ditu baliabide naturalak lanak egin bitartean.

7.- ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Kontzeptu hauetarako 100 puntu esleituko dira gehienez.

Prezioaren atalean 100 puntu esleituko dira gehienez.

Prezioaren araberako proposamen ekonomikoak puntuazio sistema honen bidez zenbatetsiko dira:

Onartu diren proposamenen prezioen araberako eskaintzen puntuazioak kalkulatzeko interpolazio lineala egingo da, puntuazio handienaren P2 puntuak (puntuazio handiena jasoko duen gehieneko baja) eta puntuazio txikienaren P1 puntuak definitutako zuzengunearen arabera. Honela esleituko dira puntuak:

P2 – Eskaini den preziorik baxuenaren puntua, (gehieneko baja, abzisetan), ordenatuetan gehieneko puntuazioa jasoko duena, hau da, 100 puntu.

P1 – Abzisetan, puntu hau bat dator bajarekin, hau da, lizitazioaren gehieneko prezioa (BEZarekin) berdintzen duen eskaintza batekin, hots, zero bajarekin. Eskaintza horri dagokion ordenatuen balioa puntutan kalkulatzeko formula hau aplikatuko da:

P1 = 100 x (1- (4 x Bmax))
(Bmax = Baja handiena)

P1 puntuaren kalkuluan emaitza negatiboa balitz, emaitza zerora eramango da.

Baja (Bi) moduan ulertuko da lizitazioaren prezioaren eta i eskaintzaren prezioaren arteko aldea (BEZarekin), zati lizitazioaren prezioa, non i-k 1etik n-rako balioak hartuko dituen, n onartu diren lizitazioen kopurua izanda.

Gorago adierazitako zuzengunea zehazteko, lehiaketan onartu diren eskaintzak bakarrik hartuko dira kontuan.

“Proposamen ekonomiko ezohikoak edo neurrigabeak:

i proposamen ekonomiko batek baja ausartegia egin duela eta, beraz, proposamen ekonomiko ezohikoa edo neurrigabea dela, ulertuko da i eskaintza horren i bajak (Bi) lehiaketan onartu diren eskaintzen multzoaren batez besteko bajarekiko % 10etik gorako aldea duenean (i-k 1etik n-rako balioak hartuko dituen, n onartu diren eskaintzen kopurua izanda).

Eskaintza batek edo gehiagok baja ausartegia egin badute, printzipioz, baina eskaintza aztertu ondoren ulertu egiten bada eskainitako prezioak egokiak direla proiektua egikaritzeko, behar bezala justifikatu delako eskaintza horren hasierako baja ausartegia eragin duen desbideratzea, proposamen hori baliozkotzat onartuko da eta P1 puntua berriz kalkulatuko da azken eskaintza ekonomikoenarekin (gehieneko baja berria), horri gehieneko puntuazioa emanda, hots, 100 puntu”.

8.- BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK

Bi eskaintzaren edo gehiagoren artean berdinketa gertatzekotan, honako hau egingo da:

Berdinketa hautsiko da desgaitasuna duten langileen edo gizarte bazterketa arriskuan dauden langileen ehuneko handiena duen enpresa hautatuta. Hor ere berdinketa balego, lehentasuna emango zaio desgaitasuna duten langile finko gehien dituen enpresari edo langile laneratu gehien dituen enpresari.

Hala eta guztiz ere berdinketak jarraituko balu, lehentasuna emango zaio aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresari.

Horrekin ere berdinketak jarraituko balu, berdinketa hori hautsiko da langile emakume gehien dituen enpresaren alde.

Aurreko irizpideekin ez bada oraindik berdinketa haustea lortu, zozketa bidez hautsiko da.

9.- LIZITAZIOAREN PREZIOA KALKULATZEKO METODOA

Lizitazioaren prezioa kalkulatzeko jarraian ageri den kostuen kostuen banaketa hartu da kontuan, kostua osatzen duten partidak honela haztatuta: zuzeneko langileen gastua % 60, zeharkako langileen kostua % 4, horniduren kostua % 10, finantza gastua % 2, ibilgetuaren amortizazioa % 5, gatu orokorrak % 13, mozkin industriala % 6; hau da, zuzeneko gastuak guztizkoaren % 75, zeharkako gastuak % 6 eta bestelako gastuak % 19.

Urruzunoko 1. eta 2. eremuetako kontrol topografikoari dagozkion kostuen kalkulua

Kostuen xehakapena kontzeptuen arabera	Guztizko kostuen %				Guztizko kostuen zatia €-tan (BEZik gabe)			
	Zuzenekoak	Zeharkakoak	Bestelako gastu posibleak		Zuzenekoak	Zeharkakoak	Bestelako gastu posibleak	
Langile gastuak (zuzeneko eskulana)	0,6				10.799,76	0,00	0	0
Langile gastuak (zeharkako eskulana)		0,04			0,00	719,98	0	0
Hornidurak	0,1				1.799,96	0,00	0	0
Finantza gastua		0,02			0,00	359,99	0	0
Ibilgetuaren amortizazioa	0,05				899,98	0,00	0	0
Gastu orokorrak			0,13		0,00	0,00	2.339,95	0
Mozkin industriala				0,06	0	0	0	1.079,98
GUZTIRA	0,75	0,06	0,13	0,06	13.499,70	1.079,98	2.339,95	1.079,98
	1				17.999,60			